

Iñaki Goenaga – Zentro Teknologikoen Fundazioa

II. deialdia

Ikertzaileak nazioartean trebatzeko eta hemen laneratzeko ETORTEK beka eta laguntzak

DEIALDIAREN OINARRIAK

ONURADUNAK

Euskal Autonomia Erkidegoan bizi direnek jaso ditzakete beka eta laguntza hauek, alegia, deialdi honetako eskaera-epea hasi baino urtebete lehenago gutxienez Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta daudenek, eta, lehentasunez, doktore titulua daukatenek. Halaber, beka eta laguntza horien onuradun izan daitezke ikertzeko gaitasun aitortua dutenak, esperientzia duten ikertzaileak eta, salbuespenez, ikasketa-espeditente bikainekin lizentziatu berri direnak.

Aurreko paragrafoan aipaturiko baldintza (erroldatua egon beharra) ez dute bete beharko Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duen unibertsitatearen batean lizentziatu edo doktoratu eta, gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi ez direnek.

Euskal Autonomia Erkidegoko 'Zientzia-Teknologia-Enpresa-Gizartea' sistema bultzatu nahian, Fundazioak arreta berezia jarriko die honako hauek egindako eskaerei: ikertzaile gisa atzerrian ikasketak eta egonaldiak egin berri dituztenek —ikasketa eta egonaldi horiek bekaren atzerriko lehen denboraldiarekin parekatu ahal izango dira—, eta beka hauetakoren bat amaitu ondoren ikerketa-lana Euskal Autonomia Erkidegoan egin nahi dutenek. Kasu horietan, ez dago bete beharrik lehenengo paragrafoko baldintza: erroldatua egon beharra, alegia.

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

Iñaki Goenaga—Zentro Teknologikoen Fundazioak deituriko beka eta laguntza hauetako bakoitza Ikerketa Zentro Kooperatibo (CIC) batek sustatuko du, baita Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko erakundeetako edozeinek edo Ikerketa Estrategikoko Programetan sartutako enpresek ere.

ATZERRIKO ZENTRO HARTZAILEA

Bekaren lehenengo aldia (urte bateko edo biko egonaldia atzerrian) programa honek lortu nahi duen goi mailako espezializatorako bekaren Sustatzaileari eta Fundazioari egokia iruditzen zaien Unibertsitate, Ikerketa Zentro edo Erakundearen igaroko da.

ATXIKITAKO ZENTROA

Gero EAEn urte bateko edo biko kontratuaz egingo den aldia, honako hauetan igaro daiteke: (a) Ikerketa Zentro Kooperatibo (CIC) batean, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarean eratua eta erregistratua baldin badago; (b) CIC horietan elkartutako erakundeetako edozeinetan; edo (c) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarearen erakundeetako edozeinetan, eta Ikerketa Estrategikoko Programetan sartutako enpresetan.

BEKA ETA LAGUNTZEN HELBURUA

Euskal Autonomia Erkidegoko ikerketa-alor estrategikoetan ikertzaileen trebatze edo espezializazioa bultzatzea, atzerrian urte bat edo biko egonaldia eginez (atzerriko Unibertsitateekin eta Ikerketa Zentroekin elkarlanean) eta, ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoan beste urte 1 edo 2 eginez.

EGITURA ETA DIRU-KOPURUA

Beka hau hartzea bateraezina da beste beka bat, ordainsariak edo norberaren edo besteren kontura zerbitzu-emateagatik ordaina jasotzearekin.

Iñaki Goenaga—Zentro Teknologikoen Fundazioak Bidaia, Mediku eta Aberriratzeko Multiasistentziako aseguruia egingo du beka dutenez. Aseguru hau ez zaie aplikatuko kontratuarekin daudenei.

• *Doktore titulua duten onuradunak*

Onuraduna Atxikitako Zentroak kontratatuko du. Kontratu horrek beka bakoitzean ezarritako iraupen berdina izango du, eta gutxienez 25.000 €-ko ordainsari gordina izango du urtean.

Espezializazio Planean finkatuko den atzerriko denboraldian, onuraduna atzerriko zentro batera joango da, Atxikitako Zentroan aplikatzen den ordainsari berbera mantenduz.

Aurrekoa gorabehera, eta atzerriko egonaldiak iraun bitartean, onuradunak ondorengo kopuruak jasoko ditu gastuetarako (berak gastuak garbitu edo justifikatu ondoren):

- Gehienez 5.000 € gordin urtean **Lekualdatzeko Osagarri gisa**
- Gehienez 2.500 € **bidaiagastuetarako**.
- Gehienez 5.000 € **ikasketagastuetarako**.

Lekualdatze-aldi hori bukatuta, onuradunak Atxikitako Zentrori itzuli behar du eta, bukatu arte geratzen zaizkion urteetan, Zentro horretan aplikatzen den ordainsaria hartuko du.

• **Doktore titulurik gabeko onuradunak**

A) Beka-egoerako aldia:

Espezializazio Planean finkatuko den atzerriko denboraldian, urtean 25.000 €-ko diru-kopuru gordina hartuko du, 2.083,33 €-ko hilerokotan banatuta.

Gainera, denboraldi horretan eta bekadunak gastuak garbitu edo justifikatu ondoren, honako kopuru hauek hartuko ditu gastuetarako:

- Gehienez 2.500 € bidaietarako.
- Gehienez 5.000 € ikasketa-gastuetarako.
- Gehienez 5.000 € beste gastu batzuetarako.

B) Kontratu-egoerako aldia:

Hasierako aldi hori igaro ondoren eta Atxikitako Zentrora itzulita, bekadunak eta Zentroak lan-kontratua izenpetuko dute, eta onuradunak zentro horretan aplikatzen den kopurua hartuko du, gutxienez 25.000 € gordin urtean.

Kontratu horrek bi urteko iraupena izango du gehienez, beka bakoitzaren espezifikotasunak kontuan izanda.

Salbuespen gisa, aldi horretan eta onuradunak gastuak garbitu ondoren, gehienez 12.500 € jaso ahal izango ditu bekari atxikitako Gastuen ordain gisa.

C) Beka-egoerak irauten duen bitartean bekadunak doktore titulua lortzen badu, bere egoera doktoreenaren parekoa izango da, lehen azaldutakoaren arabera.

IRAUPENA

Bekek bi espezializazio-aldi izango dituzte: lehen aldia atzerrian, eta gero beste aldi bat EAEn. Bi aldi horiek urte bateko edo biko iraupena izango dute, beka bakoitzaren espezifikotasunen arabera. Nolanahi ere, guztizko iraupena ezingo da izan 4 urte baino gehiagokoa.

Beka bakoitzaren iraupen zehatza dagokion Espezializazio Planean ezarriko da, baita bere Informazio Fitxan ere, eta fitxa hori hautagaiak kontsultatu ahal izango dute eskaera egin baino lehen.

Fundazioak urtero ebaluatuko du beka bakoitzaren garapena eta integratuta dagoen proiektuaren martxa, beka eskaintzen jarraitu behar den ala ez aztertzeko.

IKERKETA ESTRATEGIKOKO ALORRAK

Deialdi honetako beka ikerketa-alor estrategiko hauei buruzkoak izango dira:

- Prozesu Modelizazioa
- Fisika/Laser Aplikazioa
- Material Adimendunak
- Ingurumen Oreka: Ingurumen Iraunkortasuna eta Natura Baliabideak
- Mikro eta Nanoteknologiak
- Telekomunikabideak eta Konektibitatea
- Ikusmen artifiziala eta Interfaze multimodalak

BEKAREN GARAPENA

Beka sustatzen duen erakundeak izendatutako beka-zuzendaria izango du onuradunak.

Bekak hasteko ezarritako aldia 2006ko irailaren 11tik 2007ko martxoaren 31 artekoa da. Hasiera-data zehatza beka edo laguntza bakoitzaren espezifikotasunen arabera izango da.

BEKEN IZAERA

Beka emateak ez du esan nahi inolako lan-harremanik ezartzen denik bekadunaren eta Iñaki Goenaga—Zentro Teknologikoen Fundazioaren edo bekadunak dihardueneko erakundearen artean. Halaber, erakunde horrek ez du inolako konpromisorik etorkizunean bekaduna langile gisa kontratatzeke.

Hori guztia deialdi honetan ezarritako kontratazio-kasuak alde batera utzita.

GOZAMEN-BALDINTZAK

Programa gauzatuko den erakundearen sartzeko unetik hasiko da bekaduna beka gozatzen. Bekadunak konpromisoa hartzen du ezarritako programa betetzeko eta zentroko arauak une oro betetzeko. Horrez gain, bekari ahalik eta etekinik handiena ateratzeko jarrera egokia eta interesa agertu behar ditu bekadunak.

Beka betetzen ez bada, Fundazioak eskubidea du emandako diru-kopurua itzul dakion eskatzeko.

Beka-zuzendariak zuzenduko du bekadunaren trebakuntza; horretaz aparte, Fundazioak bekadunaren jardueraren gainean kontrol orokorra izango du une oro.

Aldian-aldian, Fundazioak bekaren garapenari buruzko txostenak eskatu ahal izango dizkio bekadunari edo bekadunak dihardueneko erakundeari. Txostena aurkezten ez bada edo Fundazioak txostenari buruzko ebaluazio negatiboa egiten badu, beka berehala eten ahal izango da. Fundazioak arrazoitu edo motibatu egin behar du erabaki hori.

Fundazioak **beka edo laguntza eteteko beste arrazoi** hauek ere azter ditzake:

- Bekari onurarik ez ateratzea nabarmen.
- Bekadunaren esku jarritako tresneria eta materialak modu desegokian erabiltzea.
- Bekadunak dihardueneko zentroaren barne-araudia ez betetzea.
- Beka bakoitzerako sinatutako akordioetan ezarritako isilpekotasun maila ez betetzea.
- Diziplinarioki tipifikaturiko egintzak gauzatzea kontratazio-aldian.

Bekadunak zein beka sustatzen duen erakundeak **aldi bateko etenaldia** eska diezaioke Fundazioari **bekaren trebatze-helburuak ezin badira lortu**. Eskaera hori arrazoi objektiboetan oinarritu behar da eta Fundazioak balioetsiko du.

Bekadunek **eskubide eta betebeharrak** hauek izango dituzte:

- Deialdi honetako oinarrietan ezarritako diru-kopurua jasoko dute beka aurrera ateratzeko.
- Lehen aipaturiko kasuetan, Bidaia, Mediku eta Aberriratzeko Multiasistentziako aseguruaren onuradun izango dira.
- Bekari dagokionaz gain prestakuntza gehigarria jaso ahal izango dute, diharduten Zentroko arauen arabera.
- Fundazioko Idazkaritza Teknikoa bekadunei laguntzeko prest egongo da, une oro.
- Diharduteneko Zentroaren barne-araudia bete behar dute bekadunek.
- Sustatzaileak beka bakoitzean sinatutako isilpekotasun-akordioak errespetatu behar dituzte.
- Beka amaitutakoan, zer lan-egoeratan dauden azaldu behar diote bekadunek Fundazioari.
- Dagozkien lan-eskubideak, lan-kontratua formalizatzerara iristen bada.

Ikerketa dela-eta egindako argitalpen orotan, Iñaki Goenaga—Zentro Teknologikoen Fundazioa eta beka sustatzen duen erakundea aipatu behar dira. Argitalpenaren kopia bat Fundazioari bidali behar zaio, eta beste bat erakunde sustatzaileari.

BEKEN ESKAERA ETA HAUTAKETA-PROZESUA

Bekak eskatzeko baldintzak

Beka jasotzeko, beharrezkoa da doktore titulua, ikertzeko gaitasun aitortua, esperientzia duen ikertzaile izan edo ikasketa-espeditente bikaina duen lizentziatu berria izatea, eta ikasketen bukaerako proiektua amaituta izatea (tituluak hala eskatzen badu).

Eskaerak aurkeztea

Eskaerak aurkeztea **2006ko maiatzaren 15etik ekainaren 30era egin behar da**, eta bigarren deialdian **irailaren 11tik urriaren 11ra**.

Fundazioaren web guneko Eskaera Inprimakiaren bidez egin behar dira eskaerak (www.fundacioncentrostecnologicos.org). Web gunean bertan dago inprimakia egoki betetzeko behar den informazioa.

Hautaketa-prozesua

Hautaketa-prozesuaren lehenengo fasea Fundazioaren ardurapean egongo da, eta Fundazioaren web gunean egindako eskaera-inprimakian emandako informazioaren arabera bakarrik egingo da. Ondoren, agiri bidez frogatu behar da emandako informazio guztia egiazkoa dela.

Horren ostean —nahitaezko betebeharra da— beka eskatu dutenei presentziazko elkarrizketa pertsonala egingo diete bekek sustatzen dituzten erakundeek.

Bekaren bat hutsik geratzen bada edo deialdietan aldaketarik gertatzen bada, Fundazioak du eskubidea egoki iruditzen zaizkion erabakiak hartzeko, betiere deialdi hau bultzatzen duten arrazoiak kontuan hartuta.

Beka eskatze hutsak oinarri hauek onartzen direla esan nahi du. Iñaki Goenaga—Zentro Teknologikoen Fundazioa arduratuko da prozesuan zehar izan daitezkeen gorabeherak konpontzeaz.

Fundazioak eskubidea izango du bidezko iruditzen zaizkion aldaketak egiteko "Ikertzaileak nazioartean trebatzeko eta hemen laneratzeko ETORTEK beka eta laguntzak" II. Deialdiaren oinarri hauetan.